

ZABALETA / ZABALETA BERRI / GOIEGI

PAUSOZ PAUSO, AUZOZ AUZO:

DATA: Martxoak 1

ORDUTEGIA: 19:00 -21:00

PERTSONA KOPURUA: 24 pertsona (8 emakumezko/16 gizonezko)

Alaitz Mendizabal, Herritarren Parte-hartzea batzordeko lehendakaria:

Lasarte-Oriako herritarren parte-hartzea sustatu nahian, herriko auzoetan bilera parte-hartzaileak egitea proposatzen da. Udalak auzoen eguneroko bizitzan oinarritutako komunikaziorako espazio bat bultzatu nahiko luke.

Gaur egun egiten diren eskaerak ia beti banakakoak izaten dira. Arrazoi hori dela eta, garrantzizkoa iruditzen zaigu auzoetan bilera horiek egitea eta premia horiek denak batera jartzea.

Auzo bakoitzak ezaugarri desberdinak dituela kontuan izanda, Udalak bertatik bertara jakin nahi du auzoetako errealitateen berri. Horregatik,, bilerak auzo bakoitzean egingo dira.

Zuek zarete, herritarrok, zeuen auzoa nola dagoen hobekien dakizuenak, eta horregatik etorri gara zuzen eskutik zuzenean jakitera nola ikusten duzuen gaur egun bizi zareten ingurunea.

Bestalde, komunikaziorako bide bati ekiteko modua ere bada, udalaren eta herritarren arteko hurbiltzea oinarritzat hartuta.

Hurbiltze eta komunikazio horretan, bi aldeek hartu behar dute parte, informazioa konpartituz eta beti herriaren eta herritarren onerako izango diren adostasunetara iritsiz.

Pablo Barrio, alkatea:

Udal-gobernua Bilduk, Herritar Plataformak eta EAJk osatzen dute. Udaleko departamentuak, berriz, hauexek dira:

- Hirigintza, ingurumena, merkataritza eta sanitatea: Nerea Sanchez.
- Ogasuna eta kontuetako berezia: Estitxu Alkorta.
- Zerbitzu sozialak, immigrazioa, kooperazioa, enplegua eta emakumea: Gorka Lizarraga.
- Obrak eta zerbitzuak: Ana Prieto.
- Pertsonala eta barne-erregimena: Pablo Barrio.
- Kultura, hezkuntza eta euskara: Boris Nogales.
- Gazteria, festak eta kirolak: Taxio Arrizabalaga.
- Parte-hartzea: Alaitz Mendizabal.

Departamentuek hilero batzordeak egiten dituzte, eta bilera horietan hainbat gai jorratzen dira, udalerriko alderdi politiko guztiekin. Batzordeetako gaiak udalbatzarrera joaten dira. Udalbatzarren deialdiak hilero bigarren asteartean egiten dira. Arratsaldean izaten dira, nahi duen edozein herritarrek haietara joateko modua izan dezan. Udalbatzarrak bukatutakoan, alkateak hitz egiteko aukera ematen die bertan diren herritarrei, jorratu diren gaietara buruz aritzeko.

Hurrengo lerro hauetan aurkezten dena 2012. urtearen zirriborro ekonomiko bat da:

2012ko aurrekontuen aurreikuspena

Gastuak: 23.900.000 €

ZABALETA / ZABALETA BERRI / GOIEGI

Diru-sarrerak: 23.200.000 €

Garrantzizkoa da bi puntu horien gainean hitz egitea, zeren eta kexak, proposamenak... marko politiko eta egoera ekonomiko honen barruan gauzatuko baitira.

Larraitz Sarobe, herritarren parte-hartzeko teknikaria

Prozesua bi fasetan banatuko da:

Lehenbiziko bileran, auzoko **diagnostikoa eta proposamenak** jasoko dira.

Bigarren bilera proposamenen gainean izango litzateke. Hemen, bilerako parte-hartzaileek erabakiko lukete egindako proposamenetatik zein diren lehenetsunekoak.

Bigarren eta hirugarren bileraren artean, denbora-bitarte bat utziko litzateke. Udalak eta auzoetako bizilagunek **hainbat dinamika partizipatibo jarriko lituzkete martxan, proiektuak garatzeko.**

Hirugarren bileran, Udalak eta herriko bizilagunek **garatutako proiektuak aurkeztuko lirateke**. Zein proiektu gauzatuko diren erabakitzeke erabiliko litzatekeen sistema ere aurkeztuko litzateke.

Prozesu horrekin, herritarrek beren auzoetan aurrera eramango liratekeen proiektuak baloratzeko, lehenesteko eta erabakitzeke aukera izango dute.

Lehen bilera honetan, banaka, talde txikietan eta talde handian, diagnostikoa eta proposamenak egingo dira. Horientzat, orri bat banatu da, 5 arlorekin:

- KULTURA
- HIRIGINTZA
- EKONOMIA
- ONGIZATEA
- PARTE HARTZEA

Aipatzekoa da, halaber, banatutako orrien artean orri bat dagoela proposamenetarako eta beste bat ebaluazioa egiteko. Ondo legoke, diagnostikoa eta proposamenak zeuen postan jaso nahi baduzue, orri hau beharrezko datuekin betetzea. Eta bileraren bukaeran ebaluazioa betetzea ere bai.

Banaka, talde txikiak eta bateratze-lana:

Proiektuaren nondik norakoak azaldukoan, herritar bakoitzak minutu pare bat izango ditu, gabezien eta proposamenen orrian beharrezko ikusten duena idazteko.

Bakarrik dauden bitartean, kolorezko gozokiak banatuko zaizkie. Talde txikiak egiteko erabiliko da hori.

Talde txikietan (4-5), bakoitzak jarri duena konpartitzeko aukera izango dute. Horrela, lehenago bururatu ez zitzaizkien ideiak gehitu ahalko dituzte.

Bien bitartean, udaleko kideak taldez talde pasatuko dira, laguntzarik behar badute ere.

Dena batera jartzerakoan, ondo neurtuko da denbora, arlo bakoitzeko gabezia eta proposamen guztiak aportatzeko beta eman dezan.

Arlo bakoitzeko, kartulina bat jarriko da, ateratzen diren ideiak apuntatuz joateko.

ZABALETA / ZABALETA BERRI / GOIEGI

Itxiera:

- Bigarren bileraren data gogoratzea eta proposamenei lehentasuna jartzeko izango dela esatea.
- Bilerara joan ezin izan den jendearentzat, kultur etxean postontzi bat jarriko da, proposamenak han uzteko.
- Bilerara etortzeagatik eskerrak ematea.

ZABALETA / ZABALETA BERRI / GOIEGI

EREMUA: HIRIGINTZA (azpiegiturak, mugikortasuna)

GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">Loidi kalean eta aldapan farola askotan itzalita egoten dira.	
<ul style="list-style-type: none">Errotonda berrian dagoen farola puskatuta dago.	
<ul style="list-style-type: none">Aldapa baina lehenago dagoen errotonda marrak margotzea.	
<ul style="list-style-type: none">Goiegiko parkearen zorua aldatu.	
<ul style="list-style-type: none">Zabaletako parkea konpondu.	
<ul style="list-style-type: none">Aldapako espaloia (gorantz) ezker aldekoa zahartuta dago eta eskuin aldekoa berritua baina oso estua farolak jartzean ez zen estutasuna kontutan hartu.	Aldapa norabide bakarrekoa jartzea.
<ul style="list-style-type: none">Pinutegi eta herriaren artean lotura handiagoa egotea.	N-1 gainetik bide bat egitea
<ul style="list-style-type: none">Autobiako pantailak esandako lekuraino jartzea.	
<ul style="list-style-type: none">Urbanizazioak bukatzeko epeak zehaztu	
<ul style="list-style-type: none">Zabaleta goitik bide berria irekitzea	

ZABALETA / ZABALETA BERRI / GOIEGI

EREMUA: ONGIZATEA (gizarte-ongizatea, hiri zerbitzuak, ingurumena)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">• Auzoko garbiketa (puntu batzuetan exkaxa da).	
<ul style="list-style-type: none">• Hiribusa martxan jartzea.	
<ul style="list-style-type: none">• Hiribusaren eta ikastetxeen irteera eta sarrerek bat egitea hiribusa hartu ahal izateko.	
<ul style="list-style-type: none">• Hernani bidean zaborra jasotzea.	
<ul style="list-style-type: none">• Autobus geltokietan markesina jartzea	
<ul style="list-style-type: none">• Goiegin autobusen geltokia	
<ul style="list-style-type: none">• Villa Mirentxuko hitzordua arindu.	
<ul style="list-style-type: none">• Konpostajerako gunea gaizki erabiltzen da (zaborra jasotzen ibiltzen diren kamioietakoak)	
<ul style="list-style-type: none">• Etxeetako zaborra (batez ere lorategietan sortzen dena) konpostajearen inguruan uzten dituztela	

ZABALETA / ZABALETA BERRI / GOIEGI

EREMUA: EKONOMIA(garapen ekonomikoa eta komertzioa)

GABEZIAK, KEZKAK, INDARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">Komertzio txikia sustatu	

EREMUA: KULTURA (EUSKARA, HEZKUNTZA, KIROLA)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">Musika taldeentzat entsailatzeko leku bat.	
<ul style="list-style-type: none">Kirol gune baten beharra	<ul style="list-style-type: none">Gutxienez aurreko frontoia bezalako zerbait jartzea.
<ul style="list-style-type: none">Urte zaharretako dantzaldia berreskuratzea.	
<ul style="list-style-type: none">Txintzarri ez da Pinutegira iristen.	

EREMUA: PARTAIDETZA (AUZOGINTZA ETA KOMUNIKAZIOA)

GABEZIAK, KEZKAK INGARGUNEAK	PROPOSAMENAK
<ul style="list-style-type: none">Informazio panelak jartzea (adierazguneak)	
<ul style="list-style-type: none">Parte-hartzea gehiago sustatzea.	
<ul style="list-style-type: none">Informazioa betik gorakoa izatea. (herritarren iritzietan oinarrituta erabakiak hartzea).	
<ul style="list-style-type: none">Hernani bidera ez da informazioa iristen.	